

DROGETEN IITURRI

Ermua eta Mallabiko aldizkaria. 234. zkia. 2015eko maiatza



**Bizikleta,
familia,
MUNDUA**

**Udal hauteskundeak
2015eko maiatza**

Ermuko zinegotzi berriak
drogeteniturrri

Barruan, hauteskundeen gehigarria



LANTALDE PROFESIONAL BIKAINA IZEN-ABIZENEKIN



ZERBITZU INTEGRAL AKREDITATUA

ETENGABEKO ORDUTEGIA



Doctor Antonio Murillo

Hezur Birsortuntza eta ehun bigunen Maneiuko Zuzendaria. **Lleidako Unibertsitatea eta Madrilen.** Periodontzia Koordinatzailea, Odontologian Lizentziatua. **Alfonso X.a Unibertsitatea, Madril.** Implantologia Masterreko Irakaslea. **Lleidako Unibertsitatea.** Kirurgia Masterreko Irakaslea. **Salamanca Unibertsitatea.** Unibertsitate Instituzioetako Irakasle gonbidatua. **Madrilgo Unibertsitate Konplutentsean eta Bartzelona, Sevilla, Almeria, Lleida, Leon, Malaga... Unibertsitateetan.**

Doctora Ainhoa Zulueta

Odontologian Lizentziatua. **Euskal Herriko Unibertsitatea.** Unibertsitate Aditua Aho Kirurgian, Periodontzian, Implantologian. **Leongo Unibertsitatea.** Diplomatua Aho Kirurgian. **Bartzelonako Unibertsitatea.** Hartz-Estetikan Diplomatua. **Madrilgo Unibertsitate Konplutentsean.** Hartz-Estetikan Diplomatua. **Autran Institutua, Bartzelona.** Etengabeko Formakuntza. **New York-eko Unibertsitatea.** Oklusioan Graduondoa. **Anibal Alonso Doktorea.**



Astelehenetik ostiralera:
8:00etatik 22:00etara

Zapuetetan:
10:00etatik 14:00 etara

Eibarko Dendarien Elkarte
ABANTAILA HANDIAK ELKARTEAREN TXARTELAREKIN ORDAINDUZ
Galdetuiguazu!



MUTUAK ETA ASEGURUAK

GLOBAL CARD, OCASO, EMESA PREVENCIÓN, CARREFOUR LIFE, AZKARAN, FRATERNIDAD, IMQ, SANTA LUCÍA, PREVISORA BILBAINA, AEGÓN/STONEBRIDGE, AVANTSALUD, PADI...
Galdetuiguazu!



IRAZABAL

clínica dental

FINANTZIAZIO BEREZIA

Abantaila ekonomiko handiak eta finantziazio aukera ezinhobeak. **GALDETU**

Julián Etxeberria, Nº 12 - 1º - 20600 EIBAR - Tel.: 943 20 85 52 - www.clinicairazabal.com

ARGITARATZAILEA:Euskal Birusa
Elkarte Kulturala.**HELBIDEA:**Erdikokale zeharbidea 2, 1.
247 posta-kutxa
943 17 93 50 / 688 63 28 76
drogeten@gmail.com
www.euskalbirusa.org**ERREDAKZIO TALDEA:**Alazne Aiestaran,
Igone Amesti,
Ibaia Azagirre,
Leire Elustondo,
Estibalitz González
eta Ekhi Velar.**KOORDINAZIO
ETA MAKETAZIOA:**

Ekhi Velar.

HIZKUNTZ ARDURADUNA:

Alazne Aiestaran.

AZALEKO ARGAZKIA:

Andoni Rodelgo

LAGUNTZAILEAK:Antonio Hernández 'Cuco',
Patxi López,
Pello Mugarza,
Valentin Mugarza,
eta Juan Carlos Martin .**ARGAZKIAK:**Igone Amesti,
Ibaia Azagirre,
PSE-EE, EH BILDU, PP, EAJ,
IRABAZI, AHAL DA ERMUA,
CIUDADANOS,
Stai Zitto,
Andoni Rodelgo,
Angel Etxebarria,
Mikel Taboada,
Estibalitz González,
Valentin Mugarza,
eta Ekhi Velar.**PUBLIZITATEA:**943 17 93 50 / 688 63 28 76
drogeten@gmail.com**INPRIMATEGIA:**

Gertu Koop. (Oñati).

BANAKETA:Ainitze Antxia, Nora Mateos
eta Olatz Vidal.**TIRADA:**

2.425 ale.

ISSN:

1133-973X.

LEGE GORDAILUA:

SS-213/1994.

*Drogeteniturrrik ez du
bere gain hartzen
aldizkarian adierazitako
iritzien erantzukizunik.*

Bertoko ugaztunak

...Gure baserriarren ahotik

SATITSU ARRUNTA *musaraña común* *Crocidura russula*

Gauetz zein egunez, bixi-bixi dabil beti. 12 hilabeteko neskatotxo delarik kumeak izateko gauza da eta 17 hilabeteak bete orduko hiltzen da, zaharkituta. Ur-satitsu hankazuria, arrunta eta txikia; hiru mota ezagutzen dira gure parajeotan. Belarra harrotzea gustatzen zaio bere mutur zorrotz eta luzekinarekin. Etxe bueltan ez du kalte handirik egiten eta orturako estimatua da: intsektujalea denez, ortuarietara hurreratzen diren kakalardo, har eta zomorroak rausta-rausta jaten ditu. Azken urteotan gutxi batzuk ikusten dira, katuak harrapatu eta etxeratu-

tako baten bat-edo. Sasoi

baten ugariagoak

ziren; ortuan nork

erabiltzen

zuen ba

intsektizida eta botikarik? Gaur egu-

nean bota bai beste zerbaiten

kontrakoa eta probatzen badute, seko geratzen dira bertan.



Hilabete honetan...

MUNDUKO AHOTSAK...4

Said Hamideddine (Maroko)

ELKARRIZKETA5-7

Stai Zitto

MALLABIAN ZER?8-9

Aurreko mendeko ezkontza

ERMUAN ZER?10

Angel Etxebarria, HORA 13

HAUTESKUNDEAK ..12-13

Udal hauteskunde gehigarria

ERREPORTAJEA16-17

Bizitza pedalkadaka

ERMUAN ZER?19

Mintzodromoa

MOTZEAN.....20-21

Txindurri eguna

IRITZIA22

"Hazi kontzienteak, etorkizun oparoaren aurrekari"

SALEROSKETAK23

Saldu, erosi edo agurtu

ANTZINAKOAK.....24

Ermuko eta Mallabiko argazkiak

KALEKO INKESTA25

Hezkuntza publikoa edo pribatua?

AGENDA26

Ekaineko agenda

Ondorengo erakundeek diruz lagundutako aldizkaria:AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA

MALLABIKO UDALA

Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia**EUSKO JAURLARITZA**
GOBIERNO VASCOHEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako SailburuordetzaDEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística

Said Hamideddine

Bizitzaren erdia Ermuan egin du Saidek. 1989an etorri zen oportretan, osaba bisitatzeko asmoz, baina bere bizilekua izan da ordutik Ermua. Orain alaba bi ditu eta Marokora joango da... oportretan!

- Nola gogoratzen dituzu Rabaten igarotako gaztetako urteak?

Nire alabek hemen duten bizitzarekin alderatuz oso bestelakoa zen, gauza asko zirelako desberdinak orduan eta tokia ere ezberdina zelako. Auzoko lagunekin ibiltzen nintzen jolasean gehien bat. Gero, bigarren gaztaroa hemen bizi izan nuen, Ermuan.

-Zergatik erabaki zenuen hona etortzea?

Oportretan etorri nintzen lehenik, izan ere, nire osaba hemen lanean zegoen eta arrea bat neukan Frantzian. Frantziatik bueltan amak esan zidan osabarenean geratzeko. Orduan ez zegoen bisarik ez Frantzian ez hemen, baina jartzeko asmoa zegoela entzuten zen. Osabak hemen hainbat egunetan lan egiteko esan zidan eta soldata ona eskaintzen zuteenez, probatu egin nuen. 15 eguneko lanaldi horren ondorioz, 25 urte daramatzat hemen!

-Ermuak liluratu zintuen beraz?

(Barreak) Nik bueltan diru pixka bat eramateko egin nahi nuen lan, baina orduan Aznarren gobernuak herrialdean paxerik gabe zeuden atzeritarrak legaliza-



tzeo kanpaina modukoa jarri zuen mar-txan eta nire egoera legalizatu nuen. Lanarengatik, gustatu zitzaidalako, Marokorekin alderatuz ezberdina delako, beste erlijio, ohitura eta abarrak dituelako... bertan geratzea erabaki nuen.

-Erabakia hartu ostean, nolakoa izan zen Ermuan bizitza berria hasteko unea?

Alde handia zegoen Rabaten nuen bizitzarekin. Ez nekien euskaraz edo gaztele-raz berba egiten, "mono" bakarrik nekien esaten (barreak). Ondo gogoratzen dut hori, izan ere, Rabateko auzoko lagun batek gaztelera ikasi zuen (han, eskolan, frantsesa edo gaztelera ikastea aukeratu zenezakeelako) eta lantzean behin gaztelera berba esaten zizkigun, eta "mono" izan zen ikasi nuen lehena.

-Eta herrimina?

Familia, etxea, lagunak... oraindik ere falta zaizkit. Ahal nuenean bueltatzen

nintzen (urtero, bi urte behin...), baina orain hemen daukat familia. Hala ere, oportretan joaten saiatzen naiz beti.

-Zer da gehien faltan botatzen duzuna?

Hizkuntza. Hemen arabiarrez gutxi egiten dut. Ia ez naiz marokoarrekin egiten, baina ez da ez dudalako eurekin egon nahi, baizik eta nire lagunak beste batzuk direlako eta eurek ez dakite arabiarrez hitz egiten. Etorrin guztiek bezala gauza asko bota izan ditut faltan, baina familia hemen edukita, orain gutxiago.

-Zer da hemendik gehien gustatzen zaizuna?

Askatasuna.

-Euskararekin zer moduz moldatzen zara?

Ez, ez, ezin dut! Alabek batzuetan euskaraz zerbait esaten didate, baina ez dut ulertzen.

Ekhi Velar

SAN ANTONIO OKINDEGIA
GOZOTEGIA

Izelaieta, 40 Tel. 17 00 63
Zubiaurre, 12 Tel. 17 38 40

AIZ

AIZ
Garraioak, S.L.

☎ 636 95 83 39 (JULEN)

ZABAL

ERMUA

IKASTOLA
1968tik Ermua
euskalduntzen



Stai Zitto, musika taldea:

“Jendeak gurekin disfrutatzen du, baina gehiago disfrutatzen dugu guk”

Euren izena Euskal Herriko edozein txokotan entzun daiteke azken aldian. Stai Zitto dira, “egon ixilik” italiaraz. Baina ez dira italiarrak, Ermua, Mallabia eta Eibarkoak baizik. Gaztea Maketa Lehiaketan Entzulearen Saria jaso berri dute publikoarekin sortzen duten kimika berezia berretsiz eta orain herriz herri ibiltzeko sasoia iritsi zaie. Eurak Maialen Arrizabalaga (ahotsa), Danel Ferreño (bateria), Axier Uranga (baxua), Asier Cascan eta Andoni Conde (gitarra), Xabier Martin (tronboia), Julen Rodriguez (tronpeta) eta Gorka Martinez de Lagos (saxofoia) dira. “Tropa bat gara!”.

- **Gaztea Maketa Lehiaketan Entzulearen Saria jaso duzue. Hori publikoak aukeratu du euren botoen bitartez. Zuen musika gustatu zaien seinale?**

Baietz dirudi. Esan beharra dago, hala ere, ezagun askok eman digula botoa. Asko mugitu gara sare sozialetan eta abar, nolabaiteko promozioa egin dugu. Ahoz ahozkoak asko balio izan du, baina ez digute lagunek bakarrik bozkatu, gure musika zabaltzen joan delako eta jendeari gustatu egin zaiolako. Orain Ermutik kanpo ezagutzen gaituzte eta, bixitasun moduan, unibertitatean Maialenen lagun bati norbait joan zitzaion esanez Stai Zittoren alde bozkatu behar zuela. Eta berak: "Nire koadrilakoa da ba abeslaria!"

-Zuentzat zer suposatu du horrelako lehiaketa batean parte hartzeak?

Oso positiboa izan da esperientzia. Jende asko ezagutu dugu, musika ezberdinak entzuteko aukera izan dugu eta finaleko guztia bizitzea izugarria izan da. Gainera, Gazteak antolatutako lehiaketa batean parte hartzeak suposatu du taldearen izena jende askoren begien aurrean jartzea eta, adibidez, edozein herritan kontzertua eskaintzen badugu, norbaitek agian izena gogo-



ratu eta hurbilduko da gu ikustera. Egia esan, orain kontzertuak egiteko aukera gehiago irten zaizkigu.

- **Gaztea Maketa Lehiaketan parte hartzea inflexio puntua izan da Stai Zittoren ibilbidean?**

Bai, duda barik. Gure izena irratan entzun da, Entzulearen Saria jaso dugula eta abar esanez, eta hori gure-tako demaseko oparia da.

- Opariez berbetan, 2.000 euroko saria gastatu duzue?

Ez, oraindik ez dugu jaso! Gainera ez dira 2.000 izango, zergak kenduko dizkigute-eta! (barreak) Hala ere, badakigu zertan gastatu: materialean. Musika munduan ibili nahi baduzu eta soinu ona egin, prezio altua ordaindu behar duzu materialarengatik. Beraz, asko eskertzen ditugu 2.000 euro-

ak. Orain arte dirua ipini besterik ez dugu egin (materiala, diskoa, lokalaren alokairua...), ezer irabazi gabe, baina buelta etorriko dela pentsatzen dugu eta jarritako dirua inbertsio bezala ikusten dugu. Diskoa grabatzeko, adibidez, dirua ipini behar izan genuen, baina emaitza ikusita, merezi izan du.

- Nola sortu zenuten Stai Zitto?

Gehienak aurretik ezagutzen genuen elkar. Lehen proiektu bat geneukan (Rock&Road) eta beste hiru gehitu genituen taldera Stai Zitto sortuz. Beraz, taldea ez zen hutsetik hasi, lehenik ere bageneukalako esperientzia.

- 2013an eman zenioten sorrera Stai Zittori eta ordutik hona diskoa grabatu, Gaztea Maketa Lehiaketan Entzulearen Saria jaso... hasiera indartsua.

Bai. Lan handia egin dugu hasieratik, lehenik diskoa grabatzeko, gero lehiaketan. Gure lehen helburua

diskoa grabatzea zen, horrela gure burua aurkezteko zerbait izango genuelako. Lehiaketari buruz jakin genuenean, ia pentsatu gabe, parte hartzeko erabakia hartu genuen.

- Gaztetasunak ematen duen ilusioarengatik agian?

Bai, izan daiteke. Epaimahiak Maialeni esan zion, adibidez, publikoa mugiarazteko ahalmena geneukala eta hori puntu garrantzitsua zela.

- Lehen sare sozialak aipatu dituzue. Zuen abestiak Youtube bezalako plataformetan daude entzungai. Zer deritozozue?

Talde txikientzat ezinbestekoak dira horrelako plataformak gaur egun, bestela 'hilda' zaude. Jendearengana heltzea oso zaila da. Txosna, taberna, festa edo bestelako mugituz eta zure musika saltzen saiatzen zara, edo akabo. Are zailagoa da guretzat, herri txiki bateko talde batentzat. Internetekin, ordea, klik batean edozein talde entzun de-

“Pentsatu eta sentitzen dugun moduan adierazten ditugu gauzak”



Drogetenituri, 234 zkia.




ZERMIK
SISTEMA ELEKTRONIKOEN GARAPENA
DESARROLLO DE SISTEMAS ELECTRONICOS
ELECTRONIC SYSTEM DEVELOPMENT

ZERMIK INGENIERIA S.L. mikrokontrolatzaile bidezko diseinu elektronikoak garatzen espezializatua dagoen ingeniari-tza-entpresa da. Horrez gain, LabVIEW-ren bitartez sistema industrialen kontrola eta monitorizazioa bideratzeko gaitasuna ere badu.

www.zermik.com

Usaetxe plaza 6-8, behea
Arrasate-Mondragon (Gipuzkoa)
Telf: 943 23 10 12

zakezu. Izugarria da hori. Gainera, musika zabaldu eta elkarbanatzeko tresna ona eta doakoa da.

- *Ermuan, txikia bada ere, musikari eta musika talde asko dago. Zergatik dela uste duzue?*

Ongarain dauden entseguetarako lokalek asko egin dute zentzu horretan. Azken finean, entseguetarako toki bat edukitzeak, zarata-rengatik arduratu gabe, orduak sartzeko aukerarekin... jarraitzeko gogoia ematen dizu. Kanpotik etorri diren askok aipatu digute oso azpiegitura onak dauzkagula. Lokalak sortu baino lehen Ermuan bazegoen talde asko, baina lokalak egoteak

suposatu du musika egin nahi duen gazte asko batzea eta hortik hainbat proiektu sortzea, agian lokala eduki barik irtengo ez zirenak.

- *Izena italiarra duzue eta abestiak euskaraz zein gazteleraz egiten dituzue. Nolako izaten da sortze prozesu hori?*

Momentuaren arabera. Letrak Maialenek egiten ditu. Gu musika jotzen hasi eta berari zerbait euskaraz irteten bazaio, ba euskaraz; gazteleraz irteten bazaio, ba gazteleraz. Adibidez, 'Cinco sentidos' abestia Andaluzian idatzi zenez, gazteleraz dago, momentuan horrela irteten zelako.

“Ahoz ahokoak asko balio izan du, baina ez digute lagunek bakarrik bozkatu”

- *Zeri abesten diozue?*

Bizitzari, musikari, lagunei... inguruan dagoenari.

- *Letrak, beraz, zuei lotuta doaz.*

Bai, beti saiatzen gara gauzak garen moduan egiten. Pentsatu eta sentitzen dugun moduan adierazten ditugu gauzak. Hala ere, oso zorrotzak gara eta dena justu nahi dugun moduan irtetea da gure asmoa.

- *Taldean zortzi kide izanda, erraza da hori?*

Esan beharra dago diskoa grabatu gurenean sei ginela eta bat taldean sartu berrikan zela. Horrek prozesua erraztu zuen erabakiak hartzeko orduan. Ondo moldatzen gara eta ez dugu arazo handirik edukitzen abestiak egiterakoan, gauza puntualetan bakarrik.

- *Disko berria egitea daukazue buruan?*

Bai. Hasi gara zerbait egiten eta ideia asko dauzkagu, baina denbora behar da. Momentuz grabagailua erosi dugu bururatzen zai-guna grabatzeko.

- *Denak ikasleak zarete. Stai Zitto afizio moduan hartzen duzue edo zerbait gehiago da?*

Ez da guztiz profesionala, baina ez da afizioa bakarrik. Ondo pasatzen dugu, bai, baina aurrera jarraitzea nahi dugu. Taldearekiko konpromisoa daukagu eta oso gustura gabilta.

- *Nola daukazue kontzertuen agenda?*

Kontzertu batzuk zehaztuta ditugu eta beste batzuk konfirmatzeke, baina uda hasi baino lehen 5 edo 6 kontzertu eskainiko ditugu.

- *Nolakoak dira Stai Zittoren zuzenekoak?*

Indartsuak! Jendeak disfrutatzen egiten duela ikusten dugu oholztatik, baina seguru guk gehiago disfrutatzen dugula.

Ekhi Velar



AMAIA HARATEGIA



Bertoko Okelak

Probaleku 5
Tfnoa. 943 17 05 84

Ermua

es
egolek
electrizitatea
iluminazioa

M. de Valdespina 14 · ERMUA
943 17 00 61 · egolek@hotmail.com

Komunitateak

San Pelayo

Aholkularitza
juridikoa

Tel./Fax. 943 17 15 65 / 943 17 25 04
San Pelayo 6-A (Eroski gainean) 46 P.K. - Ermua

arral97.com
arral

Telf.: 943 17 60 75

banatzaile ofiziala

- Luis Cañas familia	- Pazo Señorans	- Txakoli Akarregi
- Añada Real	- Vicente Gandía	- Milana
- Vllera taldea	- Oriol Rossell	- La Loca Juana
- Gomez Cruzado	- Astobiza txakolina	- nitida

arral@arral97.com - Pol. Ind. Goitondo Golekoa Parcela Pab. 1 - Mallabia

OUTUMURO

Kafetegia

Kafe eta tarta bereziak
Aukera handia **TE** eta **INFUSIOETAN**

Astelehenetik ostiralera 9etan zabaltzen dugu

Aurreko mendeko ezkontza (1)

XX. mende hasiera. Ezkontzeko asmoa eta mallabitarrak. Kontratu txikitxo bat adosten eta sinatzen dute ezkontzakoak, bakoitzaren gurasoen baimenarekin. “Ezkontza kapitulazioak” da agiriaren izena eta Mallabiko horietako bi eskritura iritsi dira gure eskuetara.

“Los contrayentes tienen pensado vivir en sociedad y compañía con los padres relacionados, guardando para mayor inteligencia y la mayor claridad las reglas que se van a fijar a continuación-


Manejarán a una mano los semovientes y la labranza, y de sus productos y de lo demás que adquieran de su trabajo se alimentarán en una mesa, y cubiertas las atenciones comunes, en salud y enfermedades, exceptuando en estas lo que sea necesario traer de fuera, por no proporcionarse en casa, que cada uno pagará, interesarán por mitad en las ganancias y pérdidas=

Si por no congeniarse, ú otra causa, se disolviese la sociedad, se repartirán, lo que en comun posean, exceptuando el arreo de la novia, y la cama de su futuro y quedarán independientes en cada mitad de la casería, dividiendo el novio y eligiendo los padres la mitad que les convenga=

Los futuros esposos en demostración del amor y afecto que profesan, se ofrecen mutuamente co-

mo arras donacion proter nupcias ó como mas haya lugar, á cada doscientas pesetas, para que el que sobrevive los lleve de los bienes del que premuera, entendiendose como aumento de dote respecto a la novia. Pactan las partes que en la sucesion de los demas bienes, se ha de observar lo prescripto por ley y fuero, ó lo que conforme á una y otro, ó á ambos á la vez se dispusiese-

Los contrayentes con el fin de evitar cuestiones de familia en abintestado, en el supuesto de que su matrimonio ha de realizarse, se confieren reciproco poder amplio absoluto y general tan bastante como se requiera, para que el que sobreviva por si, y en nombre del que premuera, sin otra disposición, haga como y cuando crea conveniente y acertado, entre los hijos que Dios nuestro Señor les conceda del mismo, la distribucion, reparto y donacion de cuantos bienes, derechos y acciones de cuantos fueran dueños en cualquier concepto, por contrato intervivos,



última voluntad, ú otro cualquier instrumento ó instrumentos en uno solo por el todo ó en distintos por parcialidades ya con arreglo al fuero del Señorío, ya con las leyes generales, mejoras y beneficios permitidos=

Enteradas la novia y su madre del derecho que

tenían para exigir una garantía hipotecaria suficiente a responder de las arras y aportaciones, el novio espresó, con juramento, que no contaba con bienes raíces al presente y lo formalizaría con los primeros que adquiriera, de solicitárselo”.

Estibalitz González

MALLABIKO Herriko taberna

Eguneko platera (3€), menua, bokatak, plater konbinatuak, pintxoak, kazolak, arraina eta txuleta parrillan (enkarguz)...

943 174 952
(estartetan itzita)

EUSKAL PRESO ETA IHESLARIA

ETXERA

oh la lá!

EMAKUMEENTZAKO MODA

Goienkale behea, z/g
48260 ERMUA (Bizkaia)
Telefonoa: 943 53 57 48
Mugikorra: 649 55 99 09
ohlalaermua@gmail.com

KULTUR HAMABOSTALDIXE 2015

Maiatzak 22, barikue

20:00 Herriarteko pilota txapelketa

Maiatzak 23, zapatue

10:30 Tenis erakustaldixe eskolako frontoiari

Maiatzak 25, astelehena

20:00 Jabekuntza sexuala tailerra Kultur Etxien

Maiatzak 28, eguena

Frontenis txapelketian finala eskolako frontoiari

19:00 Garagardo dastaketa Zurrutokixen

21:15 Biharko Izarrak XII. Txapelketa (finalurrekoak) Udal pilotalekuen

Maiatzak 29, barikue

18:00 Pilota partidak (umiek)

22:00 Antzerkixe Ttak teatroa "Ta oain ze?" Kultur Etxien

23:00 Kontzertua: Black Redding herriko tabernan

Maiatzak 30, zapatue

10:30 Mendi Lasterketa herrikoie ume eta helduentzat

14:30 Bazkari autogestionatue Udal Pilotalekuen

Arratsaldien Lip Dup-a euskararen alde

Maiatzak 30,31 zapatue eta domekie

Mallabia Cup (umeak) futbito zelaixen

Ekainak 3, eguaztena

19:30 Hitzaldia Jakoba Errekondorekin Kultur etxien

Ekainak 4, eguena

19:00 "Sua" filma Kultur Etxien

Ekainak 5, barikue

18:30 Irrien lagunak: 'Euskararen taupadak' ikuskizune Kultur Etxien

19:00 Biharko Izarrak XII. Txapelketaren finala Udal pilotalekuen

Ekainak 6, zapatue

20:30 Abesbatzen kontzertue Udal pilotalekuen

Ekainak 7, igandea

10:00 Azoka herriko frontoiari

Antzinako euskal emakumien antzezpina

Animalixen erakusketie plazan.

12:00 Gazte Alai dantza taldea, ondoren sari banaketak

13:00 Txikito de Mallabiari omenaldixe

Ondoren, abiadura proba: Txirindularixe korrikalarixan kontrako desafixue.

Ekainak 5, 6, 7

Euskararen aldeko Futbito Maratoie.

Ekainak 12, barikue

19:00 Hitzaldixe Mikel Pradera, Gorka Arrizabalaga eta Igor Astarloa txirindularixekin Kultur Etxien.

Ekinak 13, zapatue

17:00 Gimnasia Erritmikue Udal Pilotalekuen

Ekainak 18, 19, 20

Frontenis Txapelketie (bikoteka) Udal Pilotalekuen



UDALEKU IREKIXEK MARTXAN

Mallabiko Satxibu Aisialdi Taldiek udako ludoteka antolatuko dau, ekainaren 29tik uztailearen 17re. Goizez izengo da, astelehenetik ostiralera 09:30etatik 13:00etara. 4 eta 14 urte bitarteko umiek eta gaztetxuek parte hartu leikie bertan. Ordaindu biherreko kuota seme-alaba bat izen ezker 60€ eta bi seme-alaba 80€ izengo da. Izena emoteko azken egune ekainan 1a izengo da, eta lehenengo 50 umerentzat egongo da lekue. Satxibuk jakittera emon dabenez, gurasuekin batzarra ekainan 17xen izengo da arratsaldeko 18:00etan Kultur Etxien. Informazio gehixau jasotzeko Satxibu aisialdiare jo 616346237 telefonora.

Igone Amesti eta Ibaia Azagirre

hamburguesería
TITANIC



Pintxo dastaketa poteoan

Kantabria 2 • Tlf: 17 67 83

Zure
publizitatea:

DROGETEN ITURRI
DROGETEN

aldizkarian

943 179350

688 632876

drogeten@gmail.com


Proba-Leku

Neopaindegia - Estetika



Probaleku 3, 1A

Tel. 943 17 05 42



TOLDOS Y PERSIANAS ORBE

- MUNTAIA ETA KONPONKETA
- MOTORIZAZIOA
- PERTSIANA DEKORATIBOAK
- PERTSIANA BILGARRIAK
- SEGURTASUN PERTSIANAK
- MOSKITERAK
- ESTOREAK
- GORTINAK

TAILERRA: Zearreko buelta, 2
Tel. 943 17 66 34
Tel. mugikorra 630 01 13 41
48260 ERMUA (Bizkaia)

ERAKUSKETA: Karabixa, 1
Tel. 943 17 98 60
48260 ERMUA (Bizkaia)

Angel Etxebarria, HORA 13 musika taldea:

“Gaur egungo abesti askok letra hutsak dituzte”

‘Koltxoilari rockeroa’ deitu zion baten batek orain dela hainbat urte. Eta bai, horrela da. Koltxoiak saltzen ditu eta HORA 13 taldearen abeslari eta gitarra-jolea da Angel Etxebarria, Angelo bezala da ezaguna askorentzat. Poluto (bateria), Xabi (gitarra) eta Unairekin (baxua) batera ‘Cabaret’ izeneko diskoa kaleratuko dute berriki eta kontzertuak eskaintzen hasiko dira nonahi.

-Zeintzuk izan ziren zure hastapenak musika munduan!

Musikarekin lehen kontakua Ermuan izan nuen. Aitarengana bisitan etortzen nintzen sarritan eta berak zuen biltegiaren alboan Gaztetxea zegoen, Izelaietan. Han taldeak entseatzeko entzuten nituen. 15 urterekin gitarra jotzen hasi nintzen Asier Araba irakaslearekin eta, 18 urterekin, Gaztetxean entzuten nituen horiekin kontzertuak eskaintzen hasi nintzen. Storbais asko gustatzen zitzaidan, baita Sutagar ere. Aitor Goro-sabel bezala janzten nintzen, ile estilo berdina neukan, antzerako gitarra... dena!

-Durangarra izanik Ermuaren papera berebizikoa izan da zu musikara hurbiltzeko.

Bai, guztiz. Gero Damudot

taldean ibili naiz, eta hango bateria eta biok beste talde bat sortu genuen, Raxfer. Gaztea Maketa Lehiaketaren finalean egon ginen eta orain HORA 13 taldea sortu dugu. Musikari berdinek jarraitzen dugu, baina proiektuari izena aldatu diogu, egiten duguna baino musika gogorragoa egiten dugula adierazi dezakeelako Raxferrek, besteak beste.

-Onerako izan da aldaketak.

Ba pentsa, hainbat diskoetxeren atean jo ditugu eta hiruk interesa agertu dute. Azkenean Hamlet, Reincidentes eta beste talde ezagun batzuekin aritu den Maldito Records produktoreak fitxatu gaitu eta diskoa ateratzear gaude. Pozik gabilta!

-Nola joan da grabaketa?

Orain dela bi aste grabatu



genuen Rock Factoryn Alex de Benitoren gidaritzapean, eta orain argazki eta azalarekin gabilta lanean. Momentuz erantzun ona jaso du diskoak.

-Nolako musika entzungo dugu bertan?

Rock gogorra, metala, baina doinu melodikoekin. Askok diote HIM, Fifty Seconds eta antzeko taldeen antza duela. Era berean, ahotsak ezustekoa ematen duela esango nuke, gauza asko eskaintzen dituelako metaletik haratago. Eboluzioa izan dugu musikari moduan eta, gaur egun, gure kontzertura doan heavyak go-

za dezake, baina baita semearekin doan emakumeak ere, baladak ere egiten ditugulako besteak beste. Ez daukagu etiketarik. Gizarte kontuak lantzen ditugu abestietan. Gizarte kritika falta da, musika errebolitaria. Artista onak badaude ere, gaur egungo abesti askok letra hutsak dituzte.

-Noiz izango dugu zuek zuzenean entzuteko aukera?

Karikato tabernan egongo gara ekainaren 5ean, hurrengo egunean Durangoko Azokan, eta gero Zaldibar, Zornotza eta hainbat herriko jaietan.

Ekhi Velar



ZUZENBIDE KONTUAK
Lege eta kontu aholkularitza

Izarra Centre eraikina
Tel: 846080080
Mugikorra: 688885435
zuzenbidekontuak@gmail.com

J. LUCAS
PINTURA EN GENERAL



630 22 51 36

ARRIETA CORDEVI

Etxetresna elektrikoak, telebistak, musika-ekipoak...

...prezio eta kalitate ezin hobean.

VI. Centenario kalea, 5 - ERMUA

Iberikoetan espezialistak

Mayte

Denda berria

VI Centenario 5 · ERMUA
943 172 412


MUGA



KILOAK

San Pelaio 4A behea
Telefonoa: 17 64 77
ERMUA

Udal hauteskundeak 2015eko maiatza



Carlos Totorika



Juan Carlos Abascal



Lorena Lopez



Beatriz Gamiz



Jose Luis Araujo



Miguel Ledesma



Paul Yarza



Mireia Arginzoniz



Jon Cano



Jol Gisasola



Arritokieta Araiztegi



Silvia Serrano



Javier Lobato




Oiane Suarez



Fernando Lecumberri



Jesus Martin



Julen Dominguez

Ermuko zinegotzi berriak

drogetenituri

Hauteskundeetako emaitza konparatuak (ERMUA)

2011

Hautesle-errola: 13.191

	Botuak	%
PSE-EE	3.036	37,67
PP	1.647	20,44
EAJ	1.027	12,74
EB-B	733	9,10
Bildu	1.429	17,73
Baliogabeak	105	1,29
Zuriak	187	2,29
Boto emailak	8.164	61,89

2015

Hautesle-errola: 12.971

Botuak

	Botuak	%
PSE-EE	2.530	31,51
PP	844	10,51
EAJ	1.145	14,26
Irabazi	735	9,15
Bildu	1.227	15,28
Ciudadanos	293	3,65
Ermua Ahal Da	1.132	14,10
Baliogabeak	99	1,22
Zuriak	123	1,53
Boto emailak	8.128	62,66

BATZAR

NAGUSIAK 2015

Bizkaia:

EAJ: 23 Bildu: 11
PSE-EE: 7 PP: 4
Podemos: 6

Gipuzkoa:

Bildu: 17 EAJ: 18
PSE-EE: 9 PP: 1
Podemos: 6

Araba:

PP: 12 EAJ: 13
Bildu: 11 PSE-EE: 5
Irabazi: 1
Podemos: 8
Ciudadanos: 1

1. SEKZIOA

VI. Centenario 9-19/10-12, Santiago 1-3/2-4, Probaleku 3-5/2-6, Torrekuai-2, Zerukoa 2. Kalea 1, Zubiaurre 5-31.

2011	2015
PSE-EE 228	PSE-EE 198
PP 94	PP 48
EAJ 107	EAJ 88
EB-B 55	Irabazi 59
Bildu 134	Bildu 126
	Ciudadanos 14
	Ermua Ahal Da 89
BALIOGABEAK 10	BALIOGABEAK 4
ZURIAK 17	ZURIAK 4

Ermuko datu ofizialak sekzioz sekzio

2. SEKZIOA

Gipuzkoa etorb. 9-13/7-41/50-80

2011	2015
PSE-EE 246	PSE-EE 207
PP 120	PP 72
EAJ 66	EAJ 66
EB-B 48	Irabazi 39
Bildu 69	Bildu 49
	Ciudadanos 25
	Ermua Ahal Da 77
BALIOGABEAK 7	BALIOGABEAK 3
ZURIAK 13	ZURIAK 7

3. SEKZIOA

Gipuzkoa etorb. 6-48

2011	2015
PSE-EE 346	PSE-EE 292
PP 219	PP 97
EAJ 76	EAJ 85
EB-B 85	Irabazi 55
Bildu 70	Bildu 54
	Ciudadanos 34
	Ermua Ahal Da 136
BALIOGABEAK 30	BALIOGABEAK 9
ZURIAK 9	ZURIAK 9

4. SEKZIOA

Abeletxe 1-23/2-24, Bizkaia etorb. 2-6, Erdikokale 1-21/2-10, Erdikokale zeharbidea, Gipuzkoa etorb. 1-5, Goienkale 2-10/3-5, Iparragirre 1-13BIS, Izelaieta 1-21/2-40, Komentukua 1-3, Valdespina 4-8/1-5, Orbe 9-11/10, Santiago plaza 1-2, Zubiaurre 2-4.

2011	2015
PSE-EE 217	PSE-EE 211
PP 131	PP 66
EAJ 96	EAJ 141
EB-B 70	Irabazi 102
Bildu 197	Bildu 182
	Ciudadanos 30
	Ermua Ahal Da 109
BALIOGABEAK 8	BALIOGABEAK 13
ZURIAK 16	ZURIAK 10

5. SEKZIOA

Goienkale 12, San Isidro 1-15, San Roke 1-15/2-12, Santa Ana 1-2-3 kaleak, Elorreta bidea 1-9.

2011	2015
PSE-EE 185	PSE-EE 140
PP 89	PP 49
EAJ 82	EAJ 86
EB-B 34	Irabazi 40
Bildu 125	Bildu 96
	Ciudadanos 20
	Ermua Ahal Da 56
BALIOGABEAK 6	BALIOGABEAK 8
ZURIAK 7	ZURIAK 7

6. SEKZIOA

Goienkale 41-43, Okinzuri 1-13/2-4, Errekalde bidea, Zerukoa 1-2-3 kaleak, Zubiaurre 35-39/44-52.

2011	2015
PSE-EE 300	PSE-EE 211
PP 159	PP 84
EAJ 66	EAJ 78
EB-B 55	Irabazi 67
Bildu 104	Bildu 99
	Ciudadanos 25
	Ermua Ahal Da 96
BALIOGABEAK 5	BALIOGABEAK 7
ZURIAK 10	ZURIAK 10

7. SEKZIOA

Aldapa 2-8, Errabalburu, Ongarai.

2011	2015
PSE-EE 278	PSE-EE 222
PP 170	PP 81
EAJ 78	EAJ 102
EB-B 89	Irabazi 88
Bildu 135	Bildu 109
	Ciudadanos 30
	Ermua Ahal Da 107
BALIOGABEAK 8	BALIOGABEAK 6
ZURIAK 16	ZURIAK 12

8. SEKZIOA

Andaluzia zeharbidea, Bizkaia etorb. 8, VI Centenario 1, Diputazio 3-13, Komentukua 2, Valdespina 7-9/8BIS-16, Probaleku 7, San Inazio, Zeharkale 2-24.

2011	2015
PSE-EE 364	PSE-EE 306
PP 231	PP 133
EAJ 143	EAJ 175
EB-B 70	Irabazi 64
Bildu 206	Bildu 177
	Ciudadanos 31
	Ermua Ahal Da 139
BALIOGABEAK 17	BALIOGABEAK 25
ZURIAK 35	ZURIAK 27

9. SEKZIOA

Areitio bidea, Bizkaia etorb. 1-35, Ureta baserria, Zeharkale 1-33.

2011	2015
PSE-EE 334	PSE-EE 261
PP 152	PP 82
EAJ 93	EAJ 92
EB-B 69	Irabazi 65
Bildu 111	Bildu 82
	Ciudadanos 35
	Ermua Ahal Da 134
BALIOGABEAK 12	BALIOGABEAK 7
ZURIAK 17	ZURIAK 16

10. SEKZIOA

Cantabria zeharbidea, Orbe 5-7/2-8, Goienkale 7-39, Karabixa, Zubiaurre 12-40.

2011	2015
PSE-EE 210	PSE-EE 195
PP 131	PP 63
EAJ 120	EAJ 105
EB-B 62	Irabazi 67
Bildu 121	Bildu 115
	Ciudadanos 21
	Ermua Ahal Da 75
BALIOGABEAK 18	BALIOGABEAK 8
ZURIAK 12	ZURIAK 8

11. SEKZIOA

Aldapa 1-19, VI Centenario 5-7, Diputazio 8-14, San Pelaio 5-15/2-42.

2011	2015
PSE-EE 328	PSE-EE 287
PP 151	PP 69
EAJ 100	EAJ 127
EB-B 96	Irabazi 89
Bildu 157	Bildu 138
	Ciudadanos 28
	Ermua Ahal Da 114
BALIOGABEAK 5	BALIOGABEAK 9
ZURIAK 29	ZURIAK 13

Mallabiko zinegotzi berriak



Igor Agirre



Itziar Garitagoitia



Alberto Larrea



Mikel Barruetabeña



Idoia Zenikazelaia



Julen Pradera



Estibaliz Arrizabalaga



Miguel Mugarza



Oihana Onaindia

HAUTESKUNDEETAKO EMAITZA KONPARATUAK (MALLABIA)

2011

Hautesle-errolda: 986

	Botuak	%
Bildu	363	50,56
EAJ	301	41,92
PSE-EE	31	4,32
PP	12	1,67
Baliogabeak	8	1,10
Zuriak	11	1,53
Boto emaileak	726	73,63

2015

Hautesle-errolda: 989

	Botuak	%
EAJ	325	47,38
Bildu	322	46,94
PSE-EE	26	3,79
Baliogabeak	16	2,28
Zuriak	13	1,90
Boto emaileak	702	70,98

Hauteskundeen data: 2015eko maiatzaren 24a.

* Portzentaiak kalkulatzeko ez dira boto baliogabeak kontuan hartu.

KOORDINAZIOA: Ekhi Velar.

LAGUNTZAILEAK: Roberto Tejada.

INPRIMATEGIA: Gertu Koop (Oñati).

TIRADA: 2.425 ale

Bizkaiko Foru Aldundiak,
Eusko Jaurlaritzak, Ermuko Udalak
eta Mallabiko Udalak
diruzlagundutako
aldizkaria



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia



LEIRE MAYORA
PODOLOGOA
 Erdikokale 1, 1. A
 48260 Ermua
 © 943 17 47 44

Irale
 Hertz Klinika - Clínica Dental
Leire Irazu Garitaonandia
 • Ortodontzia • Aho zirkujia
 • Periodontzia • Implanteak
 • Odontologia orokorra
 Zeharkale 8, behea 943 17 71 34
 www.irale.com

Yoga eskola
 Arnasketa eta ariketa fisiko egokiak
 Erlaxazioa eta meditazioa
 Osteopatia eta bertebrologia
 Anginak sendatzeko masajea

Sanatana Dharma
 San Roke 24, behea
 943 74 85 93
 685 722131 (Idoia)

san pelayo
 clínica dental hertz klinika
 Implanteak
 Ortodontzia
 Periodontzia
 Hertz -zuriketa / Estetika dentala
 Odontologia orokorra
 Protesiak
 P.A.D.I. - I.M.Q. - SANITAS
 San Pelayo 5, 1. Olatz Garcia Arregui
 Ermua (Bizkaia) 943 17 04 04

OSASUN GIDA

NEREA IÑIGUEZ
HORTZ KLINIKA
 - Aho eta inplante kirurgia
 - Hortzetako protesiak
 - Hertz estetika
 - Ortodontzia
 - Odontopediatria
 - Endodontzia eta odontologia kontserbadorea

 Hertz klinika berri eta handitu dugu
 San Inazio 4 Tel.: 943 030 512
 Ermua niklinika@gmail.com

fisioterapia
 eta osteopatia
 zentroa
aitziber
 Aitziber Fernández
 Telf. 943 17 60 95
 629 88 70 89
 Sexto Centenario 13,behea
 48260 ERMUA (Bizkaia)

NATURA 
 Cristina Garcia Pérez
 Belar-denda eta dietetika
 • Elikagai biologikoak
 • Terapia naturalak
 • Naturopatarekin kontsultak
 • Masajeak
 • Dietistarekin kontsultak
 • Kosmetika biologikoa
 Zeharkale 12 behe esk. - ERMUA
 943176594/naturcriss77@hotmail.com

**Osasun gidan agertu nahi baduzu,
 deitu 943 17 93 50 edo 688 63 28 76 telefonoetara
 edo idatzi drogeten@gmail.com helbidera**

MATRIKULA ZABALIK

IKASTARO TRINKOA IRAILEAN

HABERen
1.(B1), 2.(B2) eta 3.(C1) mailak

AZTERKETA OFIZIALAK URRIAN

ORDUTEGIA
9:00etatik 13:00etara
edo 16:00etatik 20:00etara

BEKA SISTEMA
Langabetuek prezio erdia

IZENA EMATEKO EPEA:
EKAINAREN 30ERA ARTE
9:00etatik 13:00etara eta
17:00etik 20:00etara

Euskaraz
blai

Matrikula-epea
ZABALIK

ekainaren
30era arte

UDAKO EUSKARA IKASTAROAK

2015



ERMUKO UDAL EUSKALTEGIA

Teresa Murga eraikina - Goienkale Z/g, 2. solairua

Telefonoa: 943 17 09 25

euskaltegia@udalermua.net

www.ermua.es/pags/euskaltegia

Bizitza pedalkadaka

“Norabide, ikuspegi eta itzulera datarik gabe irten ginen 2004ko udan”. Orduetik, bizikletaren gainean egin dute euren bizitzaren zati gehiena Andoni Rodelgo ermuarrak eta Alice Gofart haren bikotekideak. Bakarrik hasi ziren, baina orain beste bi bidaiaria lagun dituzte, euren seme-alaba Maia eta Unai.

Urte hauetan egindako bidaien istorioak batzen dituen ‘El mundo en bicicleta. 7 años viajando por el globo’ izenburuko liburua aurkeztu zuen familia bidaiariak Ermuan duela pare bat aste. “Ez da bidaiaria-gida, ezta munduan zehar bizikletarekin nola bidaiatu behar den azaltzen duen liburua. Gu geu gara, ezustekoei eta

jendearekin topatzeko irerikita dauden bidaiariak”, dio Andonik. “Bidaiari bakoitza mundu bat da eta nik gurea erakusten dut”.

2004ean hasi zuten bidaiari ‘Ekialdera bizikletan’ deitu zioten, “gure ametsa Ekialde Urrunera heltzea baitzen, Tokiora (Japonia)”. Urte bi behar izan zituzten hara heltzeko, “eta bizitza



Zeelanda Berria

estilo hura gustatu zitzaigunez, jarraitu egin genuen”, dio. Gero Maia etorri zen mundura eta bidaiaria eten zuten, baina “bidaiatzeko beharra” sentitu zuten eta gero bigarren haurra izan zuten, Unai. Andoniren usteetan, “bidaiaria birus batez

infektatua dago eta ez dago osatu dezakeen txertorik”.

Umeekin edo ume gabe, Andoni eta Aliceren bidaiatzeko filosofia ez da aldatu. “Tira, umeekin goazenez ibilbidea gehiago aztertzen dugu eta ez gara toki isolatuetan sartzen”. Hala ere,



CITROËN
AUTOS AMEDI

Zearreko buelta eraikina 3, L8 pab.
Telefona 943 17 04 14

Ferreteria
ANBOTO
Burdindegi

Orain
KOTXEKO GILTZEN KOPIAK ere egiten ditugu

943 17 69 76
607 33 11 77

ZUBIAURRE, 25 ERMUA (BIZKAIA)
www.ferreteriaanboto.es



Montis DQ Mouth



Sagarra
Gastro-Pub

Probaleku 4 · Ermua · 943 946 810

BERRITZE LANAK
ZURE ERAIKINEAN
Ez dakizu nondik hasi?
GURE LANTALDE TEKNIKOKAK
LAGUNDUKO DIZU

SPARA
rehabilitación + sostenibilidad

ZUK ERABAKI

www.spara.es
info@spara.es
943 17 70 57

IZARRA CENTRE Eraikina Zeharkalea, 36, 3º 48260 Ermua - Bizkaia

DESCUBRE-TE

Teak, kafeak, txokolateak, ezta... eta baxera bereziak!!

Probaleku 4 Bis · Ermua, Bizkaia
943 03 15 81 · descubrenew@hotmail.com
www.teteriadescubre-te.com



Denetik zure maskotarentzat!

- Maskotentzako janaria
- Katu eta txakurrentzako osagarriak
- Maskoten autogarriketa
- Ileapaindegia
- Hezitzailea

Tel.: 943 05 44 20
Bizkaia etorbidea, 11 - eskuma
48260 ERMUA (Bizkaia)
bobby.todoparatumascota@gmail.com



Iran

Andonik dio haurrak uste duguna baino sinpleagoak direla, “edo zertara moldatzen dira”. Eta zera gehitzen du: “gure seme-alabek demaseko

askatasuna izan dute, konfiantza eman diegu, segurtasuna, gizartekoiak dira eta, batez ere, orain bizitza sedentarioa daukagun une hone-



Maia eta Manuelita



Txile

tan, konturatu naiz oso esku zabalak direla”. Munduak asko erakutsi diela aipatzen du Andonik. “Eurek ikusi dute jendeak euren etxetara gonbidatu gaituztela, lo egiteko tokia eta janaria eman digutela, lagundu gaituztela... beraz, eurek normaltzat ikusten dute hori, aurreko urteetan bizi izan dutena izan delako”.

Haurrengan ez ezik, bidaiatzeak eragin handia izan du Andonirengan. “Nire burua hobeto ezagutzeko balio izan dit, baita nire mugak non dauden ikusteko ere. Gizatasunaren begirada guztiz ezberdina eman dit, jendea gurekin oso ondo portatu delako eta izugarria izan da hori”.

Andoniren iritziz, bizikletan bidaiatzea jendearen etxeetan sartzeko pasaportea

da. Baina ez hori bakarrik: “Askatasuna eta edozein tokitan sartzeko aukera ematen dizu. Gainera, ez goaz ez azkar, ez motel, herrialde bat ezagutzeko abiadura perfektua ematen dizu bizikletak”. Lo ederto egiteko ere garraio onena dela dio. “Bizikletan ibili izanaren esfortzua, mendu puntara heldu eta paisaia izugarriak ikustearren parekoa da, horrek saritzen gaitu”, gaineratzen du.

Andonik aipatutako birusa nabaria da haren berbetan. Maite du bidaiatzea. Bizitza estilo horretan murgildu eta bidatzen jarraitzen dute. “Beti alai, konturatu ginelako gutxiarekin gauza asko egin daitezkeela. Norbera aske bizi daiteke eta kezkarik gabe”. Pedalkadaka jarraituko du familia honek, mundua bizikletapean dutelarik.

Ekhi Velar

enolimp
GARBIKETA ZERBITZUAK

Tel. 618 29 60 - 620 13 65 23
E-maila. enolimp@hotmail.com
48620 Ermua (Bizkaia)

Atariak - Bulegoak - Lokal komertzialak - Enpresak
Obra amaiera eta erreformak

www.enolimp.es



Probaleku 8, behea

© 943 17 18 50



Udalekuak 2015 Ingelesez

4 eta 11 urte bitartekoak

Data: Ekainaren 22tik uztailaren 23ra

Orduetgia: 09:30etatik 13:30etara (09:00etan umea ekartzea posible da)
Izena emateko epea: Ekainaren 17a, asteazkena

Akerlei
hizkuntzak

Apunta zaituz
ekainaren 1a baino lehen
edo ekarri lagun bat
eta beherapena izango duzu

Deitu edo etor zaituz gure Zentrora



TELEFONOA: 943 17 66 32
HELBIDEA: BIZKAIA ETORBIDEA, 5

"Hau da zure unea
eta zure gunea"
ASMATU

Izena ematea:
Maiatzaren 25etik ekainaren 5era arte


ArmeriaEskola^x
"ondo egindako lana"

*Matrikula
zaitez*

EIBAR

Tel.: 943 203 244
eibar@armeriaeskola.com

www.armeriaeskola.com

IES **UNI** BHI

HEZIKETA ZIKLOEN AURREMATRIKULA

MAIATZAREN 25tik EKAINAREN 5era

HEZIKETA ESKAINTZA: A ETA D EREDUAK

- HEZIKETA FISIKOA
- INFORMATIKA
- MARKETING ETA MERKATARITZA
- ADMINISTRAZIOA

PROIEKTUAK

- PRAKTIKAK ATZERRIAN
- HEZIBI - LANBIDE HEZIKETA ALTERNANTZIAN
- IKASKUNTZA ESZENATOKIAK
- OSASUNARENTZAKO PROGRAMA
- ENPRESA BIRTUALA
- UNI ENCOUNTER
- URRATS BAT

Ate irekien jardunaldiak Maiatza 20, 16:30etatik 19:00etara

www.unieibarermua.eus
uni@iesunibhi.com
TEL: 943 20 84 44 / 943 17 62 57

 www.facebook.com/iesunibhi

 @UniEibarErmua

Mintzodromoa egingo da ekainaren 20an

Euskararen praktika aldarrikatu eta herriko euskaldunon elkar ezagutza bultzatu nahi duen ekintza da Mintzodromoa. Iaz izan zuen erantzun onaren ostean, aurten bigarren aldiz egingo da ekintza hau Ermuan. Mintzodromoaren bitartez euskaraz ikasten ari direnak nahiz euskalduntze prozesuan dabiltzanak euskaraz hitz egitera animatu eta, bide batez, euskararen erabilerari bultzada eman nahi zaio.

Euskararen praktika aldarrikatu eta herriko euskaldunon elkar ezagutza bultzatu nahi duen ekintza da Mintzodromoa. Iaz izan zuen erantzun onaren ostean, aurten bigarren aldiz egingo da ekintza hori Ermuan. Mintzodromoaren bitartez euskaraz ikasten ari direnak nahiz euskalduntze prozesuan dabiltzanak euskaraz hitz egitera animatu eta, bide batez, euskararen erabilerari bultzada eman nahi zaio.

Mintzodromoa egiteko, partaideak seinaka jarriko dira mahaietan. Hiru mintzagai izango dituzte eta bakoitzak 15 minutuko luzapena izango du. Lehen

Adibidez: nire zerbaki klabea 3 da, horrela mugituko naiz.

● +3 Hemen eseriko naiz

○ +2

○ +1

● Eserita rugoen mahala

mintzagaiaren izenburua 'Jai ereduak' da, bigarrenarena 'Hondakinak zarama!' eta hirugarrenarena 'Euskaraz bizi nahi dut!'. Beraz, gai horiek kontuan izanda berriketan arituko dira mahietako kideak ordu laurdenez.

Saio bakoitzean taldez aldatuko dira partaideak, beste bost berbakiderekin aritzeko. Mahaiz aldatzeko hainbat argibide izango dituzte parte hartzaileek (horietariko bat ez da mugituko). Antolatzaileak ezarritako euskaldun osoa izango da hori). Eserleketan zerbaki klabea egongo da eta horrek zehaztuko du al daketa egitea tokatzen denean zein mahaira joan beharko duen bakoitzak (alboko irudian dago adibidea).

Iazko edizioan 70 bat pertsonak hartu zuten parte eta aurten

100 parte hartzaile izatea da antolatzaileen asmoa, "ikus dadin Ermuan ere euskaldun piloa dagoela". Berba egiteaz gain, mahaietan edatekoa eta jateko modakua edukiko dute parte hartzaileek eta zerbitzari lanak egiten Ermuko Gazte Asanbladakok ibiliko dira. Gainera, eurak izan dira azken gaiaren edukia proposatu dutenak.

Mintzodromoan parte hartzeko Ermuko euskaltegiaren eman behar da izena. Informazio gehiagorako 943 171 940 (Kaltxango AEK euskaltegia), 943 170 925 (Ermuko Udal euskaltegia) edo 943 179 147 (Ermuko Udal Euskara Saila) telefonora deitu, ermua_berba@aek.org helbidera idatzi edo www.ermuaberba.blogspot.com webgunera jo daiteke.

Ekhi Velar



Caperos

Pintxoak · Razioak · Kaxolak · Plater konbinatuak · Ogitaratekoak
Probaleku z/g (Ermua) 699 292 043 · 636 549 154

Egaña

ETXETRESNA ELEKTRIKOEN
SALMENTA ETA KONPONKETA

Diputazioa 7 (Ermua) · 943 17 66 08

ILEAPAINDEGIA

Izaskun

Goienkale, 9 (Plaza San Martin)
48260 Ermua Bizkaia
Tel. 943.17 66 90

ILEAPAINDEGIA

T XALAPARTA
ABERNA

Eta asteburuetan
pintxoak, afariak
eta bokatak!

- Itsaskabra pudina.
- Txipiroiak.
- Piper beteak: okela edo onddoak.
- Fritoak: urdaiazpikoa edo onddoak.
- Redondo saltsan.
- Sagar tarta.
- Gazta tarta.
- Tortila patata...

Erdikokale 13 (Ermua) **ENKARGYAK**
943 030 299

Enter

INFORMÁTICA

SALMENTAK / IRAKASKUNTZA / ZERBITZU TEKNIKOKO

VI Centenario 19, behea
Tel. 943 17 90 37
e-maila: enter-i@arrakis.es

**TXAKURREI
LAGUNTZEKO GALA**

'Marcan Huella' elkarteak gala bat egingo du maiatzaren 29an, 20:00etan Ermua Antzokian, abandonatuak izan diren txakurrei laguntzeko. Horren bitartez kaleetan abandonatuta dauden txakurrei oinarritzko zerbitzuak eskaintzeko behar den dirua lortu nahi da. Izan ere, abandonatutako txakurren kopurua gora doa eta elkarteak gaindituta zegoen behar hori asetzeko orduan.

Ermua Antzokian egingo den jaialdian musika eta dantzak egongo dira, denetariokoak izan ere: klasikoa, flamenkoa, euskal dantza eta rocka. Bestetik, 'Marcan Huella' elkarteak saltzen duen arropen ibiltokia egingo da eta gaur egunera arte egin duten lanaren ikus-entzunezkoa aurkeztuko dute. Gainera, UCAS erreskate taldearen lana ere izango da ikusgai.

Jaialdira joan ahal izateko 6 euroko sarrera erosi behar da Eibarko Arkupe eta Lau Bide tabernetan, eta Maria Ospital dendan; eta Ermuko Dakota tabernan eta Nane dendan.

Herrialde nepaldarrarekin elkartasuna

Mundu osoko begiak Nepalera begira jarri ziren orain dela hilabete herrialde asiarraren gertatutako lurrikararen ostean (7,9 graduko Richter eskalan). Orduetik lurrak mugitzen dirau eta asko izan dira erreplikak. 8.648 hildako eta 16.808 zauritu egon dira lurrikaren ondorioz gobernu nepaldarrak adierazi duenez.

Lurrikara gertatu eta berehala hainbat pertsonak eta elkarteak laguntza eskaini diete nepaldarrei, baita Ermuan ere. Herriekiko Elkartasunerako Ermuko Elkarteak 8.696 euro batu ditu. Bertan, Ermuko Udalak larrialdi laguntzetarako urtero eskaintzen dituen 3.600 euroak daude sartuta eta, elkarteok ez azaldu dutenez, Eibar, Mallabia, Elgoibar, Gernika eta Mallorcatik bidali dute dirua.

Laguntzetariko asko Facebooken 'Euskal Herriatik Nepalgo herriarekin' izenarekin ireki den taldearen deia erantzunez egin dira. Talde hori Nepalen bizi den Miguel Luque ermuarren lagunek sortu dute eta 688 pertsonak egin dute bat orain arte. Laguntzak Nepalen 10 urte daramatzen Luqueren bitartez kanalizatuko dira.

Lehentasan nagusia kanpin-dendak lortzea da, etxea galdu dutenei aterpea emateko. Izan ere, euren egoera asko okertu da maiatzaren 12an gertatutako bigarren lurrikara handiaren ondorioz (7,1 graduko Richter eskalan). Gainera, hilabete barru montzoia hasiko da eta horrekin batera euritea, horrek izan ditzakeen ondorio larriekin.

Lagundu nahi izanez gero, Herriekiko Elkartasunerako Ermuko Elkarteak kontu bat zabaldu du edonork diru-laguntzarik eman nahi badu. Hau da kontuaren zenbakia: ES83 3035 0048 64 0480064819 (Laboral Kutxa).

Jabekuntza Eskolen Sarearen topaketa

Ilkasterteari amaiera emateko topaketa antolatu du Bizkaiko Jabekuntza Eskolen Sareak. Topaketa ekainaren 6an egingo da Ermuan, Lobiano Jauregian, eta aurtengo gaia 'Emakumeak eta musika' izango da. Horrela, hainbat galdera luzatu dituzte horren gainean gogoeta egiteko: "Emakumeak ba al daude musketan? Zein oztopoei egin behar dizkiote aurre? Ezagutu ditzagun musika iraultzen ari direnak".

Ekainaren 6ko zita 10:30ean hasiko da bertara hurbilduko direnei ongietorria emanez. Ondoren aurkezpena egingo da eta 'Emakumeak Musketan' hitzaldia eskainiko dute Miren Aranguren, Emarock eta Itsaso Gutierrezek 11:00etan. 12:00etan eztabaidarako ordua izango da eta musika emanaldia egongo da ostean La Furia, Izaro Andres eta Itsaso Gutierrezen eskutik. 14:00etan flashmob-a egingo da eta 14:30ean bazkaria edukiko dute.

Bertara joan nahi izanez gero, nahitaezkoa da izen-emate fitxa betetzea eta hura Emakumeen Topalekura eramatea edo igualdad2@udalermua.net helbidera bidaltzea. Izena emateko epea maiatzaren 29an amaituko da eta bakoitzak zerbait eraman beharko du bazkarira besteekin elkarbanatzeko. Informazio gehiago nahi izanez gero, 946124102 telefonora deitu.

**mari
asun** 
LORADENDA
Diputazioa 9 - ERMUA - Tel. 943 174379

uriarte asesores 
Aholkularitza fiskala
eta lege aholkularitza
Komentukoa 3 behea · Tel. 943 179 040 · Faxa 943 179 197
48260 · Ermua · Bizkaia

Pub Dakota

Probaleku, z/g
Ermua (Bizkaia)
dakotaermua@hotmail.com

KRABI 
Ileapaindegia
Estetika
Tel: 943 03 17 56 Diputazio, 5 ERMUA

'eta hau, zergatik ez euskaraz?' kanpaina martxan

Euskal Herriko 13 herritan 'eta hau, zergatik ez euskaraz?' sentsibilizazio kanpaina jarri da martxan. Kanpaina ez da berria, aurretik hainbat euskaltzaleen elkartek egin izan baitute antzekorik, baina lehen aldiz egingo da orain hainbat herritan batera Euskaltzaleen Topaguneak koordinatuta.

Ekainaren 20ra arte Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako 13 herritan komertzio, erakunde eta eragile ezberdinen errotulazio eta komunikazioak euskaratzeko eskaria egingo dute euskaltzaleek. Hori posible egiteko, euskaltzaleen elkarteetako bazkideak bihurtuko dira kanpainako protagonista eta eragile.

Kanpainak lau urrats izango ditu. Lehenik, boluntarioek 'eta hau, zergatik ez euskaraz?' leloa duten pegatinak jarriko dituzte herrian aurkitzen dituzten erdara hutsezko errotulu edo karteletan. Horiei argazkia atera eta Twitter zein Instagram erabiliz, edo kanpainarako sortuko den webgunera bidaliz identifikatuko dira. Bigarrenik, partekatutako argazkiak webgunean jarriko dira ikusgai. Gero, euskaltzaleen elkartetik erdarazko errotuluak dituztenei gutuna bidaliko zaie euren euskarri guztietan euskara erabil dezatela eskatuz eta horretarako laguntza eta aholkularitza eskainiz. Azkenik, jasotako informazioa eta testigantza guztiak Hizkuntza Eskubideen Behatokiaren eta Elebideren esku jarriko dira.

San Martin Azokako laguntzaileen txangoa

Euskal Birusak, urtero egiten duen lez, San Martin Azoka egunean parte hartzen duten guztiari eskerrak eman nahian, txangoa egingo du ekainaren 13an. Izena emateko epea, berriz, ekainaren 8an amaituko da. Horretarako, Erdikokale 2, 1 helbidean dagoen bulegotik pasa, 943 17 93 50 edo 688 63 28 74 telefonoetara deitu, edota euskalbirusa@gmail.com helbidera idatzi beharko da.



SAN JUAN PIZTEAR

Ekainaren 23an, asteartea, San Juan sua egingo du Euskal Birusa Elkarteak Orbe kardenalaren plazan, 22:00etan hasita. Ohikoa denez, dantza herrikoiak egingo dira eta baita irrintzi lehiaketa ere. Hiru sari banatuko dira irrintzi lehiaketan. Batetik, nagusien kategorian bi lagunentzako saria lortuko du irabazleak. Bestetik, gazetxoen mailako irabazleak 25 eurotako erosketa txeketa eta bigarren geratzen denak 15 eurotako txeketa eskuratuko du.

Ugaro
aholkulariak

Hazi kontzienteak, etorkizun oparoaren aurrekari

Gustuko dut oso udaberria, negu gorriaren ostea, natura esnatzen eta hazten den urteko sasoi hau. Lo zegoena, deskantsuan, dena bizten da bat-batean. Badakigu denok hazia zenbat eta osoen egon, orduan eta uzta osasuntsuagoa heldutu eta fruitu emankoragoak emango dituela. Berezko prozesua da, ez behartua, zentzuduna, naturaren berezko adimena martxan jartzen denekoa.

Gu ere, gizon-emakumeak, haren parte gara eta biziaren mekanismo berak egiten gaitu. Kezkatzan hasia naiz, hala ere, ez ote garen erratzen ari. Azken hilabeteetan, lanean, jaurdunaldi, erditze eta erditze osteko aldietan lanean ari diren profesionalekin hartu-eman zuzena edukitzen nabiltzen eta ugalkortasun arazoak ugaritzen ari direla diote.

Gero eta beranduago erabakitzen dugu guraso izatea. Askotan hazia ahulegi dago jada prozesu horretarako. Urteetan metodo antikonzeptiboak hartzen egon izanak ere eragiten du. Gabezi

biokimikoek. Bizi ohiturak. Gurasotasunari buruz barneratuak ditugun funts bako ideiak. Memoria zelularrean gordetako esperientzia bital osoa. Nahi, desio, gogo falta. Adorea eta konpromisoa bezalako balioen eskasia. Kutsadura mentala eta emozionala. Bizi esperientzian oinarritutako belaunaldien arteko transmisio eza. Heziketaren eta hezkuntzaren garrantzia.

Ugalkor egotea faktore askoren emaitza da, beraz. Zailtasunak beti izan dira, hala da, baina, egun, gurean, naturak inoiz baino traba eta muga gehiago erakusten dizkigu arlo horretan ere. Badirudi, nahi barik bada ere, bizia sortzeko ditugun aukerak mugatu ditugula. Kontra-natura bizitzearen ondorioak ere agertu dira gure barrenetan. Garenaren eta ahal dugunaren hazia ahultzen ari garen susmoa dut, uzta emankorren eta oparoen kalterako betiere.

Nik uste dut hausnartzen, ohar-tzen eta neurriak hartzen hasi behar garela egoera honetara era-



Ainara Riveras

man gaituzten faktoreez, kasu batzuetan haurrak munduratzeko bizi diren esperientzien gogortasunez, esfortzu ekonomiko, sozial eta animikoez eta komunitatearen bermerako izan ditzakeen ondorioez. Inoiz ez da berandu. Hainbeste kostu eta esfortzu ekiditeko. Ahultzen eta mugatzen gaituena identifikatu eta aldatzeko. Esperientzietan oinarrituta, prebentzioa lantzeko. Guraso izan edo ez, guraso izan nahi edo ez, haurrak munduratzeari, norberaren esperientzia intimoaz gain, komunitatea sortzea, etorkizuna ereitea badelako. Etorkizuna ondoren datozenak direlako, zentzuak ekar gaitzala honetan ere denon onerako den berezko biderra.

Badirudi, nahi barik bada ere, bizia sortzeko ditugun aukerak mugatu ditugula

solozabal
tabakoak

torrekua 1
tel./fax: 943 17 07 33



URRETA burdindenda

- * Etxea
- * Tresneria
- * Brikolajea
- * Ervailak
- * Giltzak
- * Sarrailagintza
- * Kit altzariak

Beharkalea 8 Tel: 943 17 65 61 ERMUA



Maiatzak 5
Zorionak Bingen! Musu handi bat etxeko guztien partez. Egun zorionsua izan!



Apirilak 1 eta 7
Zorionak June eta Koldo zuen urtebetetzean! Ondo pasa!



Apirilak 14
Zorionak Asier! Musu erraldoi bat familiaren partez!



Apirilak 10
Zorionak Miren zure 8. urtebetetzean! Ondo pasa eta segi hain alai eta zorionsu. Muxu handi bat, ama, aita eta Beñaten partez!



Maiatzak 28
Zorionak Naroa eta oso ondo pasatu zure 3. urtebetetzean! Musu handi bat etxekoen partez!



Maiatzak 30
Zorionak Leire zure 4. urtebetetzean familia guztiaren partez! Muxu handi bat! Askok maite zaitugu!



Ekainak 10
Zorionak amatxo zure seme-alaben partez!



Ekainak 23
Zorionak Aratz zure 8. urtebetetzean! Ondo pasa eta jaso opari asko!!



Maiatzak 24
Zorionak June domekan sei urte beteko dituzu-eta! Muxu handi bat familia guztiaren partez!



Maiatzak 31
Zorionak Olatz (txokolatera!) 7 urte zoragarri pasa dira. Muxu handi bat zure familiaren partez! Segi horrela!

Hurrengo zenbakirako azken eguna:
EKAINAREN 17a



Ekainak 18
Zorionak pitxin!!!! Familiaren partez mila muxutxu. Maite zaitugu pila, patata tortila!



Ekainak 6
Zorionak amatxo familiaren partez! Askok maite zaitugu!



Ekainak 20
Zorionak kuñaaa! Egun zoragarri, lirugarri, primerakoa... pasa dezazula. Muxutxuak!

Pub SCORPIO



Zubiaurre, 21
ERMUA



optika
ITZE

✓ ENTZUMENAREN DOHAINEKO KONTROLAK
✓ AUDIFONOETAN AZKENENGO TEKNOLOGIA

Probaleku, 7 Tfnua. 943 17 46 51



PUB YOMY

Zubiaurre
kalearen
bihotzean



FOTOKOPIAK
KOLOREZKO FOTOKOPIAK
HANDIPENAK - TXIKIPENAK
PLANOAK - AZALEZTAPENAK
FAX PUBLIKOA
INPRIMAKETAK KAMISSETATAN

Komentukua, 6 behea 48260 ERMUA TEL. / FAX 943 17 42 89

**MALLABIA
1968**

Argazki hau 1968ko apirilaren 14ean aterata dago. Etxekoneko Ana Mari eta Pedrok jaunartzea ospatu zuten egunekoa da.

Bertan agertzen dira: Maria Jesus Garitagoitia, Ana Mari Mallabiabarrena, Arantxa Uriarte, Maria Luisa Uriarte, Inmaculada Abendibar, Blanca Uriarte, Maria Angeles Arriaga, Ana Mari Mendibe eta Pedro Mendibe.

**ERMUA
1995**

Udal korporazioa 17 zinegotzik eta alkateak osatu zuten 1991-1995 legegaldian eta beronen amaieran, argazki hau atera zuten Udaletxeko Batzar Aretoan, bertan kargu banaka batzuk falta badira ere. Carlos Totorikak alkate bezala egindako lehen lau urtekoa izan zen. Tente, ezkerretik eskumara: Niceto Ocejo (PSE-EE), Carlos Caño (PSE-EE), M^a Asun Totorika (PSE-EE), Carlos Totorika (PSE-EE), Ander Salaberria (EAJ), Francisco Javier López (PSE-EE), Antonio Cortizo (PSE-EE) eta José Antonio Fernández (idazkaria). Jesarrita: Félix Prol (PSE-EE), Miguel Ledesma (PSE-EE), Eduardo Markina (PSE-EE), Begoña Vesga (EB-IU), Espe Urreta (HB), Carmen García (PSE-EE), Harritokieta Araiztegi (EAJ) eta Jesús Carrascosa (PSE-EE).

Quetzal
[arropa, bitxiak, opariak...]

Goienkale, 9 • 48260 ERMUA | 943170065
www.quetzalmoda.com [f] [B]

SAGARDUI
poltsak

Zubiaurre, 29 - Ermua - 943 170305



Ikasturtea amaitzear da ikasleentzat, baina ikastetxeak hurrengora begira daude.

Matrikulazio kanpainan buru-belarri daude (edo ibili dira kasu batzuetan) eta familia asko euren haurrak non matrikulatu erabakitzen dihardute. Eskaintza denetarikoa da eta ikastetxe publiko, pribatu eta hitzarmenduen artean egin beharko dute aukera.

Hezkuntza publikoa, pribatua edo hitzarmenduna?



Garrantzitsuen ikastetxe bakoitzean ematen denaren kalitatea da, berdin zait publikoa, pribatua edo hitzarmenduna den. Nik uste dut gaur egunean irakasleak ondo prestatuta daudela hori horrela izateko.

Maitane Aranguren, 39 urte



Aukera bat egin beharko banu, publikoa aukeratuko nuke, baina ondo aztertu beharko nuke. Ez da erabaki erreza eta gauza asko hartu behar dira kontuan, baina zerbait esatekotan, publikoa esango nuke.

Carmen Bidarte, 56 urte




Publikoaren aldekoa naiz ni, beti ere gauzak ondo egiten badira. Azken aldian aldaketa asko daude hezkuntza sisteman eta ematen du hezkuntzaren kalitatea murriztu nahi dela. Penagarria da politikoen esku hartzea gai honetan.

Pedro Saenz, 51 urte



Ez nuke jakingo esaten zein den onena. Nik hezkuntza pribatua jaso nuen, baina ez dakit publikoa nolakoa den, beraz, ezin dut esan. Ni pozik ibili nintzen eta uste dut hezkuntza ona jaso nuela.

Miguel Revuelta, 55 urte



Tasio eta Sabino

-Kaleko unibertsitatean bai ikasten dutela, bai.

ZINEA**6tik 8ra****13tik 15ra****20etik 22ra****27tik 29era**

Ermua Antzokian.
Hainbat film eta
ordutegi.

ZINE-KLUBA**Hilak 4****Hilak 11****Hilak 18****Hilak 25**

Ermua Antzokian.
Hainbat film.
20:30ean.

UMEENTZAKO ZINEA**Hilak 7****Hilak 14****Hilak 21****Hilak 28**

Ermua Antzokian.
Hainbat
film. 17:00etan.

ERAKUSKETAK**Hilaren 1etik 14ra:**

Margoak: Mugartea taldea.

Hilaren 15etik 28ra:

Margoak: Udal Margo
eskolako ikasleak.

Lobiano Kultur Gunean.
18etatik 20etara.

MUSIKA**Hilak 6:**

Kontzertu lirikoak:
Zartzueta eta opera.
Sopranoak: Nora
Chena eta Leire Gómez
Ariztondo. Tenorea: Aitor
Ecieza. Pianoa: Itziar
Barredo. 20etan.

**Hilak 19:**

Kontzertua: Alboka
Musika eskolako ikasleak
(Alboka eguna).
22etan. Ermua
Antzokian. Sarrera
dohainik

ANTZERKIA**Hilak 13:**

"Guernica 1913",
Banarte taldearen esku-
tik. 20.30ean. Ermua
Antzokian. Sarrera:
10€

UMEENTZAKO EKITALDIAK**Hilak 5, 12, 19 eta 26:**

Barixakuetan: haurren-
tzako jolasak. 17etan.
Orbe Kardenalaren
plazan.

DANTZA**Hilak 6:**

Txindurri eguna: Soka
dantza eta erromeria
Gavargi taldearekin.
19etan. Orbe kardenala-
ren plazan.

**Hilak 7:**

Txindurri eguna: Dantza
erakustaldia (12etan) +
Erromeria Jaiaganarekin
(17etan). Orbe kardenala-
ren plazan.

BESTELAKOAK**Hilaren 8tik 13ra:**

Gastronomiari buruzko
jardunaldiak: hainbat
ekitaldi.

Hila 13:

Gaua irekia: hainbat
ekitaldi, hainbat leku-
tan.

Hilaren 14:

Aize zabaleko margo
lehiaketa.

Hilak 21:

El Rozioko erromeria:
hainbat ekitaldi. 11 eta-
tik. Betiondoko aparka-
lekuan.

Hilaren 23:

San Juan sua: Hainbat
ekitaldi. 22etan. Orbe
kardenalaren plazan.

Hilaren 26tik 28ra:

Galiziako eguna
Euskadin: hainbat eki-
taldi. Orbe kardenala-
ren plazan.

Patxi López

**TXINDURRI
TALDEA
Tokian
tokiko**

PRO

- ARRAINDEGIA
- ITSASKIAK
- ARRAIN FRESKOAK ETA
IZOZTUAK

**ESKAINZA BEREZIA
OSTRALERO**

Zubiaurre, 21 baxua
Tfnoa. 17 16 96 (despatxua)
" 17 24 33 (etxea)
Merkatu Plaza, Tfnoa. 17 41 59
ERMUA

**Infreñu
Taberna**

Kardenal Orbe plaza
943 174584
www.infretaberna.com

ALBOKA

**MUSIKA
ESKOLA**

- Akordeoia
- Klarineta
- Biolina
- Panderoa
- Biolontxelo
- Perkusioa
- Bonbardino
- Pianoa
- Flauta
- Saxofoia
- Kantua
- Trikitrixa
- Gitarra
- Tronboia
- Gitarra elektrikoa
- Tronpeta
- Gitarra baxua
- Txistua
- Lengoia musikala

Tel. 943 17 12 98 / 943 17 18 00 • albokamusikaeskola@hotmail.com



NOCHE ABIERTA

DEL COMERCIO, EL OCIO Y LA CULTURA

KOMERTZIO AISIA ETA KULTURAREN

GAUA ZABALIK

komertzioak zabalik

22.00 - 01.30

ERMUA

EKAINAREN 13an

Ekitaldiz eta ustekabez beteriko jaia!!



Ermuacentrocomercial

ERMUKO MERKATARI ETA OSTALARI ELKARTEA
ASOCIACIÓN DE COMERCIANTES Y HOSTELEROS DE ERMUA

**UDAKO
IKASTAROAK 2015**

**UDAN ERE
EUSKAHALDUNDU
ZAITEZ!**

aek

Garena ikasteko
para entendernos
pour se comprendre



EUSKALTEGIAK

IKASTARO TRINKOAK, EUSKALDUNTZEA
AZTERKETAK PRESTATZEKO · ON LINE IKASTAROAK



**2 ASTEKO
BARNETEGIAK**

EUSKARA ESKOLAK
EUSKARAZ BIZITZEKO AUKERA · AZTERKETAK PRESTATZEKO



**FAMILIA
BARNETEGIAK**

EUSKARA IKASTEKO
SEME-ALABEkin EUSKARAZ ARITZEKO



**BARNETEGI
IBILTARIAK**

OINEZ ZEIN BIZIKLETAZ · MINTZAPRAKTIKA EGITEKO

673 200 100 · 946 464 000

www.aek.eus



KALTXANGO AEK EUSKALTEGIA

2015eko UDA (EKAINA / UZTAILA / IRAILA)

**B1, B2 ETA C1 MAILAKO AZTERKETAK PRESTATZEKO IKASTAROAK
EUSKARA HOBETZEKO IKASTAROA (HOBEKUNTZA)**

Ekainaren 25etik uztailaren 22ra

Irailaren 2tik 29ra

4 ordukoak · Goizez zein arratsaldez

AZTERKETAK URRIAN

Idazmeneko proba - **Urriaren 24an**

Mintzameneko proba - **Azaroan eta abenduan**

EUSKALTEGI HOMOLOGATUA

Bizkaia etorbidea 13, behea · 943 171 940 · kaltxango@aec.org

Diruz lagunduak